GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOAREN 2027RAKO AURREKONTU OROKORRAK ONARTZEN DITUEN FORU ARAUAREN AURREPROIEKTUAREN GENERO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA EGIAZTATZEKO NAHITAEZKO TXOSTENA

Txosten hau Ogasun eta Finantza Departamentuak eskatuta egin da, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauaren 70. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 27. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Zehazki, txosten honen xedea da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak egiaztatzea behar bezala aplikatu direla Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren 27.b) artikuluan xedatutakoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren xedapen orokorren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostenak egiteko jarraibideak, Foru Gobernu Kontseiluak 2011ko ekainaren 21ean hartutako erabakiaren bidez onartuak; halaber, hobekuntza proposamenak egitea.

2026ko urriaren 29an, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuak goian aipatutako aurreproiektuaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiaztatzeko txostena eskatu zion Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari. Aurreproiektu horren xedea da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2027rako aurrekontu orokorrak onartzea.

Foru araua denez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2/2015 Foru Arauaren 27.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa erantsi behar zaio. Horretarako, proiektua sustatzen duen organoak genero eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena egin du, foru arau horren 27.2 artikuluan aurreikusitako moduan.

Horrenbestez, Berdintasun Zerbitzuak, Diputatu Nagusiaren Alorraren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko uztailaren 19ko 15/2016 Foru Dekretuaren 12. artikuluan xedatutakoari jarraituz, genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiaztatzeko dagokion txostena egiten du.

EGIAZTAPENA

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2027rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arauaren aurreproiektuaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostenak jasotzen dituen bi arauketa motak deskribatzen ditu: batetik, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2027rako aurrekontu orokorrei buruzkoa; eta, bestetik, aurreproiektuaren xedapen gehigarrietan jasotako zerga araudiaren aldaketa jakin batzuei buruzkoa, 2027ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoak. Aldaketa horiek gai hauei eragiten diete zehazki: Gipuzkoako zenbateko finkoko foru tasen eguneratze orokorra arautzen da, % 3ko igoerarekin (zerbitzuak emateari eta garraioari dagozkienak salbu); 2025ean indarrean zeuden katastro balioak ere % 3 eguneratzen dira, bai eta PFEZaren zenbateko jakin batzuk ere. Era berean, zergen arloko berandutze interesa % 4,0625ean ezartzen da 2027ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako.

Era berean, aurreproiektuaren genero egokitasuna behar bezala identifikatzen du; izan ere, aurreikusten da Gipuzkoan bizi diren pertsona fisikoei, emakumeei zein gizonei, eragin diezaiekeela, baliabideak berdintasunez eskuratzeko eta/edo kontrolatzeko aukerak erraztu edo zaildu ditzakeelako, eta genero rolak eta estereotipoak hausten lagunduko duten edo ez duten gizarte jokabideak bidera ditzakeelako.

Ondoren, txostenak aurreproiektuak eragin ditzakeen emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzen ditu, eta bertan jasotako arauketek generoaren ikuspegitik izan dezaketen eraginari buruzko balorazioa egiten du, alde batetik proposatutako aurrekontu araudia eta, bestetik, zerga araudia kontuan hartuta.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzea eta aurrekontu araudiaren genero eragina aztertzea

Aurrekontu araudiari dagokionez, txostenak adierazten du Gipuzkoako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunen identifikazioa eta proposatutako aurrekontu araudiaren genero ikuspegiko azterketa «Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2027rako aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioaren memorian» jasota daudela. Memoria hori ere aztergai dugun aurreproiektuaren izapidetzean txosten honekin batera doa.

Memoria Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoaren, Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren arteko lankidetzaren emaitza da. Aurrekontu arauaren genero eragina ebaluatzeko legezko eskakizunari erantzuten dio eta, horrez gain, «emakumeen eta gizonen berdintasunean aurrerapenak bermatuz politika publikoak eraldatzea» ahalbidetuko duen lan prozesu baten parte izateko borondatea du.

Horregatik, aurrekontu arauaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa jasotzen duen memoriaren helburuak lotuta daude, halaber, aurrekontu plangintzan genero ikuspegia pixkanaka hobeto txertatzearekin; herritarrekiko gardentasunarekin eta kontu ematearekin, zerga bilketak eta gastu publikoak emakumeen eta gizonen berdintasunean izan dezaketen eraginari buruzko informazio argia, zehatza eta eskuragarria ematen baita; eta, azken batean, aurrekontu araudia Gipuzkoako emakumeen eta gizonen bizitzako esparruetan agertzen diren desberdintasunak zuzentzeko tresna izan dadin bermatzearekin.

2027ko Memoriak, urteroko lan prozesu baten emaitza den heinean, azterketarako elementu berriak sartu ditu 2026ko Memoriarekiko, bai azterketaren edukiei, bai hura egiteko antolatutako lankidetza moduari dagokienez.

Hala, txostenak zehazten duen bezala, Memoriaren edukiak Gipuzkoako testuinguru sozioekonomikoari eta emakumeen eta gizonen artean identifikatutako desberdintasun nagusiei buruzkoak dira, testuinguru horretan eragingo baitute aurrekontu publikoek. Halaber, aurrekontu publikoei eragiten dieten generoari lotutako dimentsio guztiei buruzkoak dira: gastu publikoari eta diru sarrera publikoei buruzkoak.

Alde batetik, gastuen atalak hiru dimentsiori lotutako emaitzak biltzen ditu: 20 aurrekontu programaren genero eraginaren azterketa —aurrekontu osoaren % 36,4 hartzen dute—; Gipuzkoako Foru Aldundiko langile gastuena (1. kapitulua); eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako foru politikak sustatzeko egiturei lotutako gastuena, hau da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoari eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Departamentuetako Unitateei dagozkienak.

Ildo horretan, azpimarratzekoa da aztertutako programen % 90ek baino gehiagok genero ikuspegia edukietan txertatzeko maila altua edo oso altua dela jotzeko baldintzak betetzen dituztela; beraz, emakumeen eta gizonen berdintasunean izan dezaketen eragin positiboa espero da, eta interesgarria litzateke eragin hori ondoren neurtzea aurrekontu gauzatzearen azterketaren bidez. 1. kapituluari dagokionez, azterketak erakusten du genero arrakala 1,6 puntu handitu dela aurreko urtearekin alderatuta; zehazki, 2026an % 12,6koa da. Horren arrazoi nagusiak zaintza lanen banaketa desorekatua eta, ondorioz, lan horietarako baimen eta eszedentzia gehiago eskatzea dira, baita segregazio horizontalaren eta bertikalaren ondorioak ere. Azkenik, sailkapen organikoaren azterketaren ondorio nagusia da Gipuzkoako Foru Aldundiak aurrekontu osoaren % 0,22 bideratzen duela berdintasun politikak sustatzera, Berdintasunerako Foru Arauak ezartzen duen % 1etik urrun eta aurreko urtean baino 0,03 puntu gutxiago. Berdintasuneko gastuaren pisua 0,04 ehuneko puntu jaitsi da 2020tik 2027ra.

Bestalde, diru sarreren atalak bi dimentsiori lotutako emaitzak jasotzen ditu: diruzko sarrerak eta diruzkoak ez diren sarrerak; bereziki, Gipuzkoan ordaindu gabeko etxeko lanek eta zaintza

lanek egiten duten ekarpen ekonomikoari dagozkionak. Atal horrek 2023ko datu eguneratuak ditu, eta bere helburua da, aurrekontu publikoaren kudeaketaren esparruan, foru erakundeak zaintza kargaren zati bat bere gain hartzeak edo arintzeak ekarriko lukeen benetako kostua edo aurrezkia zenbatestea, lan horiek egiten dituzten pertsonak ikusgarri egiteaz eta haien lana balioesteaz gain. Diruzko sarrerei dagokienez, PFEZa, Ondarearen gaineko Zerga eta zerga gastuak kontuan hartuta aurreikusitako sarrerez gain, Sozietateen gaineko Zerga eta tasa jakin batzuk eta beste diru sarrera garrantzitsu batzuk ere aztertzen dira.

Azkenik, txostenak zehazten duen bezala, Memoriak amaierako atal bat dauka, genero eraginaren ebaluazioaren emaitzak laburbiltzen dituena, aurrekontu proposamenaren indarguneak eta ahulguneak identifikatuz, eta etorkizuneko ekitaldietako aurrekontu plangintzan lantzea gomendatzen diren hobekuntza proposamenak jasoz, emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin orokor positiboa bermatzeko bidean aurrera egiteko.

Testuinguru horretan, txostenak, orain arte adierazitakoa azaltzeaz gain, Memoriatik Gipuzkoan agertzen diren emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun nagusietako batzuk eta 2027rako aurreikusitako aurrekontu gastuari lotutako dimentsioen genero ikuspegiko azterketatik ateratako emaitza nabarmenenetako batzuk jasotzen ditu.

Azkenik, adierazi behar da ekitaldi honetan elementu berritzaile gehiago sartu direla, azterketaren eremua zabaltzeko eta aurrekontuak egiteko jarduna hobetzen jarraitzeko. Egindako lanari jarraipena emateak aukera ematen du dagoeneko denbora serieak txertatzeko eta PFEZarekin edo diruzko sarrerekin lotutako datuen urte arteko konparazioak egiteko, baita lehen aipatutako atal berriak sartzeko ere. Hobekuntza horiei esker azterketa integralagoa egin ahal izan da, eta aurreko urteko txostenean jada hobetu beharreko alderdi gisa aipatutako zenbait gairi erantzun zaie.

Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzea eta zerga araudiaren genero eragina aztertzea

Aurreproiektuaren xedapen gehigarrietan proposatutako arau aldaketei —tasak eta berandutze interesa eguneratzeari— lotutako emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak identifikatzeari dagokionez, txostenak dio ez dagoela «emakumeen eta gizonen abiapuntuko egoera ezagutzeko behar diren daturik». Hala, Memoriak zerga sarrera garrantzitsuenetako batzuk aztertzen ditu, baina, bertan adierazten denez, «helburua da azterketaren irismena zabaltzea, tasetatik eta prezio publikoetatik datozen sarreren genero azterketa ere sartuz».

Hala ere, Ondasun Higiezinen gaineko Zergari (OHZ) lotutako genero desberdintasun potentzialak identifikatzen dira. Horrela, 2026ko zerga ekitaldiko OHZaren datuen azterketak, sexuaren arabera bereizita, erakusten du emakumeak ondasun higiezinen titular diren pertsona fisiko guztien % 51,9 direla; emakumeek aitortutako ondasunek katastro balioaren % 52,7 metatzen dutela; eta OHZaren % 52,4 ordaintzen dutela (68 milioi euro, gizonek ordaintzen dituzten 62 milioien aldean).

Zerga honetan proposatutako aldaketek izango duten genero eraginari dagokionez, zerga bilketan 3,9 milioi euroko eragina izango dutela kalkulatzen da. Zenbateko horren % 52,4 emakumeei dagokie, eta ordaindu beharreko kuota 2,0 milioi euro handituko zaie. Gizonen kasuan, ordaindu beharreko kuotaren igoera 1,8 milioi eurokoa izango da (guztizkoaren % 47,6). Hau da, emakumeek neurri handiagoan lagunduko dute bilketa igoera horretan.

Hala ere, txostenak aitortzen du genero eraginaren ebaluazio horren irismena mugatua dela, gutxienez bi arrazoirengatik. Lehenik, ebaluazioa OHZari lotutako eraginari soilik badagokio ere, onartzen da katastro balioen eguneratzeak zerga askotan duela eragina, balio hori «maiz erabiltzen baita horien zerga oinarria zehazteko». Bigarrenik, adierazten da ebaluazioak ez duela ahalbidetzen OHZari lotutako genero desberdintasun potentzial guztiak identifikatzea eta ulertzea eta, beraz, ez duela laguntzen, hala badagokio, desberdintasun horiek murrizteko neurrien diseinua bideratzen. Zailtasun horiek gainditzeko, etorkizuneko ekitaldietan azterketa aberastea proposatzen du txostenak, «ondasun horien titularren ezaugarri pertsonal eta familiarretan nahiz higiezinen berezko ezaugarrietan (etxebizitzak/lokalak; batez besteko katastro balioak…) sakonduz». Adierazten denez, azterketa horrek «ondasun higiezinen jabetzarekin eta titulartasunarekin lotutako beste zerga batzuetan dauden arrakala jakin batzuk hobeto ulertzen lagunduko du», besteak beste, «PFEZeko kapital higiezinaren etekinetan emakumeek duten proportzio handiagoari eta ondarearen gaineko zergan higiezinengatik aitortutako balioen zenbatekoari» lotutakoak.

Txostenak, halaber, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zenbait zenbateko % 3,0 eguneratzearen eragina aztertzen du. Ildo horretan, proposatutako neurriek zerga bilketan 70,8 milioi euroko eragin negatiboa izan dezaketela kalkulatzen da; bilketa eragin horren % 53,3 gizonei dagokie, eta gainerakoa emakumeei. Txostenak dio, oro har, proposatutako aldaketek emakumeei gizonei baino neurri txikiagoan egin diezaioketela mesede. Kasu gehienetan, gizonek etekin handiagoa ateratzen diete aplikatu beharreko murrizketei eta kenkariei; hori dagoen desberdintasunen ondorio da, lanaren sexuaren araberako banaketa tradizionalaren eta emakumeei eta gizonei rol desberdinak esleitzearen emaitza.

Hala ere, aldaketa oso txikia da, eta ez dirudi eragin esanguratsurik izango duenik zergaren banaketan eta, ondorioz, emakumeen eta gizonen berdintasunean.

Nolanahi ere, txostenak adierazten duen bezala, atal honetan ondorio sendoak ateratzeko zenbait muga daude, batez ere baterako tributazioagatiko murrizketari buruzko datuei dagokienez. Aurreproiektua sustatzen duen organoak berak ohartarazten du genero azterketari lotutako zailtasun metodologikoek (zergadun bat baino gehiago duten baterako aitorpenetan, zerga oinarrian zenbateko handiena duen pertsonaren sexua esleitzen zaio aitorpenari) ebaluazioa nabarmen mugatu dezaketela eta, are gehiago, egindako genero eraginaren balorazioa aldatu.

ONDORIOA ETA HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Azaldutako guztia kontuan hartuta, eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 9ko 2/2015 Foru Arauaren 27.2.b) artikulua betez, egiaztatzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2027rako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Foru Arauaren aurreproiektua sustatu duen departamentuak behar bezala aplikatu duela 2/2015 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako prozedura.

Izan ere, dagokion prozeduran ezarritako urratsak bete dira —aurreproiektuaren genero egokitasuna identifikatzea, emakumeen eta gizonen egoera identifikatzea eta aztertzea, eta genero eraginaren aurretiazko ebaluazioa egitea—, bai aurreproiektuaren aurrekontu araudian, bai zerga araudian araututako alderdiei dagokienez.

Hala ere, prozedura behar bezala aplikatu izanak ez du esan nahi aztergai dugun arau proposamenean araututako alderdien genero eraginaren aurretiazko ebaluazioak aukera ematen duenik zorroztasunez ondorioztatzeko —organo sustatzaileak igorritako txostenak ere ez du hala egiten— proposatutako aurreproiektuak, oro har, emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa izango duela aurreikusten denik. Izan ere, aurrekontu araudiaren nahiz zerga araudiaren genero ikuspegitik aztertutako dimentsioen azterketak, oro har, erakusten du azterketen irismena zabaldu behar dela —foru langileen gastuak, aurrekontu programak, diru sarrerak eta zerga gastuen eta gastu politiken arteko loturak—, eta aurrekontuen eta zergen arloan genero berdintasuna txertatzeko prozesuan aurrera egiten jarraitu behar dela.

Aitzitik, egindako ahaleginak, funtsean «Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2027rako aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioaren memorian» eta xedapen gehigarrietan jasotako zerga aldaketen azterketari dagokionez aztergai dugun txostenean bildutakoak, erakusten du norabide egokian aurrera egiten ari dela: aurrekontu aurreproiektuaren generoari lotutako dimentsio guztien azterketan nabarmen aurreratu da;

emakumeen eta gizonen berdintasunean eragin positiboa bermatzeko aurrekontu aurreproiektuaren indarguneak eta ahulguneak identifikatu dira; eta etorkizuneko aurrekontu ekitaldietan sustatu beharreko hobekuntza proposamenak antzeman dira. Bereziki, honako hauek:

1. Aurrekontu programei dagokienez:

- Genero azterketa aurrekontu programa gehiagotara zabaltzea eta langileei aholkularitza espezializatua eskaintzea emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak murrizteko neurriak aplikatzeko.
- Aurrekontu plangintza (EBA) hobetzea, genero ikuspegia eraginkortasunez txertatuz. Bereziki, aurten genero eraginari buruzko txostenen integrazioa probatzea eta berdintasun ekintzak eta haietara bideratutako gastua zehaztea proposatzen da.
- Genero eraginaren ebaluazioan aurrera egitea aurrekontu ziklo osoan, programak gauzatu aurretik nahiz ondoren, emaitzak egiaztatzeko, ez-betetzeak hautemateko eta etorkizuneko jarduketak hobetzeko.
- Berdintasunerako departamentuetako unitateak indartzea, egitura horiek arau agindura egokituz beren eginkizunak bete ahal izan ditzaten.

2. Langileen politika

- Langile gastuari buruzko datuak hobetzea, soldata desberdintasunak zehaztasun handiagoz ebaluatzeko. Identifikatzaile bakarrak erabiltzea, kontratuen iraupena eta benetako lanaldiak kontuan hartzea, orduko soldata arrakala kalkulatzea eta datu kuantitatiboak informazio kualitatiboarekin osatzea proposatzen da.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Barne Planaren aplikazioa ebaluatzea, soldata arrakala aztertzeko eta urtero haren jarraipena egiteko. Emaitzek Planaren eragina baloratzeko eta neurri berriak proposatzeko aukera emango dute. Jarduketa horiek Funtzio Publikoaren 2027ko aurrekontuan txertatu dira.
- Lanpostuen balorazioan egon daitezkeen genero joerak aztertzea, bereziki soldata desberdintasunak lanbide jakin batzuen feminizazioarekin edo maskulinizazioarekin lotuta daudenean.
- Erantzukizun handieneko lanpostuetan emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua sustatzea, emakumeek goi mailetara iristeko dituzten zailtasunek soldata arrakala handitzen laguntzen baitute.

3. Berdintasuna sustatzeko egiturak

- Berdintasunerako Organora eta departamentuetako unitateetara bideratutako baliabide ekonomikoak eta giza baliabideak pixkanaka handitzea.
- Berdintasunerako Organoa indartzea, haren aurrekontua eta langile espezializatuen kopurua handituz, bere eginkizunak behar bezala bete ahal izan ditzan.
- Berdintasunerako departamentuetako unitate espezializatuak eta dedikazio nahikoa dutenak bermatzea, haien baliabideak departamentu bakoitzaren tamainara, eskumenetara eta beharretara egokituz.

- Gipuzkoako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2025-2027 IV. Plana bultzatzea; plan horrek foru egiturak hobetzea aurreikusten du, berdintasunaren arloko aholkularitza eta sustapen eginkizunak eraginkortasunez bete ditzaten.


4. Diru sarrerak eta zerga politika

- Zerga onuren azterketa hobetzea, gastu politikekin lotuz eta kenkari, murrizketa eta salbuespenen onuradunak nor diren eta emakumeengan eta gizonengan zer eragin duten aztertuz.
- Zerga araudiaren genero eraginaren ebaluazioak indartzea, haien emaitzak etorkizuneko erreformak desberdintasunak murriztera bideratzeko erabiliz.
- Emakumeen autonomia ekonomikoa eta lan parte hartzea sustatzen dituzten eta errenta aldeak murrizten dituzten zerga neurriei lehentasuna ematea, enpleguari, kontziliazioari, erantzunkidetasunari, etxebizitzari, ekintzailetzari eta lanbide sustapenari arreta jarriz.
- Kalitatezko zerbitzu publikoak finantzatzeko adinako zerga bilketa mantentzea, bereziki zaintzarekin, mendekotasunarekin, haurtzaroarekin eta gizarte zerbitzuekin lotutakoak; izan ere, zerbitzu horiek batez ere emakumeen gain erortzen den ordaindu gabeko zaintza karga murrizten laguntzen dute.
- Zaintzen gizarte antolaketaren azterketan sakontzea, politika publikoek emakumeen eta gizonen, familien, administrazioen, merkatuaren eta komunitatearen artean erantzukizunak nola birbanatzen dituzten aztertuz.
- Datu estatistikoen eskuragarritasuna hobetzea, Eustati etxeko lanari eta denboraren banaketari buruzko datuak maizago argitaratzeko eskatuz.
- Tasen eta prezio publikoen azterketa zabaltzea, ordaindutako zenbatekoak erabiltzaileen ezaugarri sozioekonomikoekin lotuz, egon daitezkeen desberdintasunak identifikatzeko.


Hala eta guztiz ere, azpimarratu behar da aurreproiektua sustatu duen organoak —Ogasun eta Finantza Departamentuak—, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak eta aurrekontu aurreproiektuaren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena egiaztatzen duen organoak —Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoak— egindako lankidetza lanaren balioa. Lan horri esker, nabarmen hobetu da 2027rako proposatutako aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretiazko balorazioaren kalitatea, bai ikuspegiari eta irismenari dagokienez, bai azterketa kuantitatiboari eta kualitatiboari dagokienez; horren berri ematen du «Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2027rako aurrekontu orokorren genero eraginaren aurretiazko ebaluazioaren memoriak». Orain arte egindako lan hori eta jarraitutako ibilbidea, zalantzarik gabe, sustatu beharrekoak dira; izan ere, etorkizuneko aurrekontuen diseinuak Gipuzkoako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen berdintasunari lotutako aginduak benetan bete ditzan zorroztasunez aurrera egiteko egiturazko baldintzak sortzen laguntzen ari dira.

Azkenik, gaztelaniazko testuan hizkera ez-sexista eta inklusiboa erabiltzeko ahalegina egin dela ikusten da.

Donostian, 2026ko urriaren 29an



Laura Gómez Hernández
Berdintasun Zerbitzuko burua



Sandra Barrenetxea Díez
Berdintasuneko teknikaria

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa